



HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2021EKO MARTXOAREN 8KO EBAZPENA, ZONALDE BURUAK HAUTATZEKO PROZESUAREN DEITZEN DUENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 15.2 artikulua ezartzen duenez, zonaldeburuak zerbitzu-eginkizunetan izendatuko dira Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren ebazpen bidez, ikuskaritza-zonaldeari esleitutako Hezkuntzako Ikuskariaren Kidegoko funtzionarioen nahiz desagertutako hezkuntza administrazioaren zerbitzuko Ikuskariaren Kidegoko funtzionarioen artean merezimenduen lehiaketa egin ondoren, berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioak kontuan hartuta.

Lehiaketa horretan, Langileen Kudeaketako Zuzendaritzak batzorde bat izendatuko du. Batzorde horrek baloratuko ditu egindako lana eta zonaldeko esku-hartze proiektua eta izangaien ikuskaritza-jarduaren antzintasuna. Zonaldeburuei bi urteko epealdi baterako esleituko zaizkie. Epealdi hori lau urtera arte luzatu ahalko da egindako lanaren ebaluazioa positibo egin ondoren

Horren arabera, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 10.2 c) artikuluan xedatutakoaren arabera,

EBAZTEN DUT

Lehenengo.- Deialdiaren helburua.

Deialdi honen xedea ondorengo funtzioak hauek betetzeko hautaketa-prozesua deitzea da:

- Bizkaiko 1. Ikuskaritza-Zonaldeko Burutza.
- Bizkaiko 2. Ikuskaritza-Zonaldeko Burutza.
- Bizkaiko 3. Ikuskaritza-Zonaldeko Burutza.
- Bizkaiko 1. Ikuskaritza-Zonaldeko Burutza.
- Gipuzkoako 1. Ikuskaritza-Zonaldeko Burutza.
- Gipuzkoako 2. Ikuskaritza-Zonaldeko Burutza
- Gipuzkoako. 3. Ikuskaritza-Zonaldeko Burutza.
- Arabako ikuskaritza-Zonaldeko burutza.

Bigarrena- Parte-hartzeko eskakizunak.

1.- Hezkuntza Ikuskariaren Kidegoko karrerako funtzionarioa izatea deialdi honen egunean.

2.- 2020ko irailaren 1ean esleituta egotea eskatzen den Burutzari dagokion ikuskapen-eremuan.

Hirugarrena.- Eskabideak formalizatzea eta aurkezteko epea.

1.- Hautagaiek Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratutako eredu ofizialean egin beharko dute eskabidea.

Eskabidea Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzara zuzenduko zaio.



Eskabide horiek hemen aurkeztu ahal izango dira:

-Lurralde-ordezkaritzetan.

-Zuzenean zerbitzuan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan, arau horretan ezarritako baldintzen arabera.

Eskabidearekin batera, memoria bat aurkeztu beharko da, gehienez ere 15 orrialdekoa, alde batetik. Memoria horretan, eremuan esku hartzeko proiektu bat jaso beharko da, II. eranskinean adierazitako karatula eta guzti.

Memorian bertan ezin izango dira hautagaiaren izen-abizenak idatzi, ezta hura identifikatzeko bestelako daturik ere.

2.- Eskabideak, memoriarekin eta egokitzat jotzen den dokumentazioarekin batera, aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, deialdi hau Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.- Balorazio-baremoa.

Eranskinean zehazten den baremoaren arabera baloratuko dira bai merezimenduak, baita memoria eta elkarrizketa ere.

Prozesua gainditzeko, memoriari esleitutako balioaren %50 lortu beharko da gutxienez, eta elkarrizketatuari esleitutako balioaren %50 gutxienez.

Ezin izango da prozesuan aurrera egin aurreko paragrafoan adierazitako irizpidea gainditu ez bada.

Bostgarrena.- Balorazio-Batzordea.

Ondorengo kideek osatuko dute balorazio-batzordea:

- Hezkuntza Sailburuordea, batzordeburu gisa ari izango dena.
- Hezkuntza Ikuskari Nagusia.
- Hezkuntza Lurralde Ordezkeri bat, Hezkuntza Sailburuordearen proposamenez.
- Lurralde burua den Hezkuntzako ikuskari bat, Hezkuntza Ikuskari Nagusiaren proposamenez.
- Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, idazkari gisa, ahotsarekin baina botorik gabe, ari izango dena.

Era berean, sektorean ordezkari nahikoa duen sindikatu bakoitzeko ordezkari bat egon ahal izango da Batzordean, hitzarekin baina botorik gabe.

Seigarrena.- Ebazpena

Behin-behineko ebazpena eta erreklamazioak

Balorazio-prozesua egin ondoren, batzordeburuak deialdi honen ebazpen-proposamen bat bidaliko dio Langileak Kudeatzeko zuzendariari, zuzendariak deialdiaren behin-behineko ebazpena eman dezan, onartutako eta baztertutako langileekin eta hautagai bakoitzari emandako puntuazioarekin.

Behin-behineko ebazpena argitaratuko da Hezkuntzako web-orrian:
<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/>



Hiru egun balioduneko epea irekiko da erreklamazioak egiteko.

Behin-betiko ebazpena

Izan daitezkeen erreklamazioak aztertu eta ebatzi ondoren, edo erreklamaziorik ez balego, Langileak Kudeatzeko Zuzendariak deialdiaren behin betiko ebazpena argitaratuko du. Bertan, hautagai bakoitzari emandako balorazioak adieraziko dira, hautatutako eta baztertutako pertsonen azken zerrenda emango da, eta hutsik gera zitezkeen lanpostuak ere azalduko dira.

Ebazpen hori Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da, jakinarazpenetarako. <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/>

Behin betiko ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zazpigarrena.- Izendapena eta luzapena.

Hautatutako ikuskatzaileek esleitu zaizkien eginkizunak beteko dituzte, dagozkien ondorio ekonomiko eta administratiboekin, izendapenaren egunetik aurrera, hau da, 2021eko irailaren 1etik aurrera.

Eginkizunak bi urterako esleituko dira, eta beste bi urtez luzatu ahal izango dira, egindako lanaren ebaluazio positiboa egin ondoren.

Zortzigarrena.-Datu Pertsonalen Babesa.

Zure datu pertsonalak **tratamendu-jarduera** honetan tratatu eta sartuko dira: Hezkuntza Ikuskaritzako Zonaldeburuak hautatzeko prozesuaren deialdia kudeatzea.

Arduraduna: Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: Hezkuntza Ikuskaritzako zonako buruak hautatzeko prozesuaren deialdia kudeatzea.

Legitimazioa: Interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzeko beharrezkoa den tratamendua.

Interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunak eskatuta kontratu aurreko neurriak aplikatzeko beharrezkoa den tratamendua.

Hartzaileak: Estatuko Administrazioiko beste organo batzuk.

Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren beste baliabide batzuk ere.

Informazio gehigarria: Datuak babesteari buruzko informazio gehigarri eta zehatza gure webgunean kontsulta dezakezu <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/es/>

Araudia: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES> 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>

**ERREKURTSOAK**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 8an.

Blanca María Guerrero Ocejo
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



ERANSKINA

I. HEZKUNTZAREN IKUSKARITZAN EZPERIENTZIA.

Ikuskari Nagusi , Ikuskaritza Nagusian mailako Ikuskari Koordinatzaile edo Ikuskari Zentral gisa zerbitzuak emandako hilabete oso bakoitzeko.	0.020 puntu hilabete bakoitzeko	1.5 puntu gehienez
Ikuskaritzako lurralde-buru gisa lan egindako hilabete oso bakoitzeko.	0.020 puntuak hilabete bakoitzeko	1.5 puntu gehienez
Barrutiko Ikuskari Koordinatzaile gisa edo zonako Buruzagitzaren eginkizunak bete izanagatik lan egindako hilabete oso bakoitzeko.	0.020 puntuak hilabete bakoitzeko	1.5 puntu gehienez
Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostu batean emandako hilabete oso bakoitzeko.	0.010 puntu hilabete bakoitzeko	1.5 puntu gehienez

* Aldi bera ezingo da aldi berean zenbatu aurreko idatz-zatietako batean baino gehiagotan.

II. MEMORIA ETA ELKARRIZKETA

Bete beharreko funtzioei buruzko memoria, gehienez hamabost orrialde.	2 puntu gehienez
Elkarrizketa, aurkeztutako Memoriaren edukiarekin lotuta.	2 puntu gehienez

*Lanpostuarekin lotutako alderdi hauek baloratuko dira Memorian:

- Zonalde burutzaren funtzioak betetzeari buruzko proposamena:
 - Zonaldeko taldearen lana zuzendu, antolatu eta koordinatzea.
 - Zonaldeko urteko/Lurralde planaren betetze-mailaren kontrola eta ebaluazioa.
 - Zonaldeko ikastetxeetan esku hartzea.

(puntu 1era arte)
- Zonalde burutzaren lidergoa, zonaldeko ikastetxeak hobetzeko prozesuei buruzkoa
(0.33 puntu, gehienez)
- Kalitatezko hezkuntza jasotzeko ikasleen eskubidea bermatzen laguntzeko zonalde burutzaren ekarpena
(0.33 puntu, gehienez)
- Lurralde burutzekin eta Ikuskaritza Nagusiarekin Koordinazioa eta lankidetzatza
(0.33 puntu, gehienez)

*Elkarrizketan, Memorian garatu beharreko alderdiak, funtsean, oinarri izango dituena, lehiatzaileen alderdi hauek baloratuko dira:

- Zonalde buruaren lanpostuan bete beharreko funtzioen garapena
(0.5 puntu gehienez)
- Ikuskaritzaren funtzioak eta jarduerak betetzeko behar diren gaitasun tekniko-profesionalen, sozialen eta etiko-profesionalen ezaguera
(0.5 puntu, gehienez)
- Zonaldean sor daitezkeen egoera problematiko konkretuen azterketa eta erantzuna
(0,5 puntu, gehienez)
- Memorian adierazitako planteamenduen eta horren zehaztapenaren (jarduera-proposamena) arteko koherentzia.
(0.5 puntu, gehienez)



II. ERANSKINA

EREMUAN ESKU HARTZEKO PROIEKTUA JASOTZEN DUEN MEMORIA

(GEHIENEZ ERE 15 FOLIOKOA, ALDE BATETIK)

IZEN-ABIZENAK:

MEMORIA ARI DEN IKUSKARITZA-ZONALDE BURUTZA:

- Zonalde burutzaren funtzioak betetzeari buruzko proposamena:
 - Zonaldeko taldearen lana zuzendu, antolatu eta koordinatzea.
 - Zonaldeko urteko/Lurralde planaren betetze-mailaren kontrola eta ebaluazioa.
 - Zonaldeko ikastetxeetan esku hartzea.

(puntu 1era arte)
- Zonalde burutzaren lidergoa, zonaldeko ikastetxeak hobetzeko prozesuei buruzkoa
(0.33 puntu, gehienez)
- Kalitatezko hezkuntza jasotzeko ikasleen eskubidea bermatzen laguntzeko zonalde burutzaren ekarpena
(0.33 puntu, gehienez)
- Lurralde burutzeekin eta Ikuskaritza Nagusiarekin Koordinazioa eta lankidetzatza
(0.33 puntu, gehienez)

OHARRA: MEMORIAN BERTAN EZIN IZANGO DA HAUTAGAIAREN IZENIK/ABIZENIK EDO BESTE DATURIK JARRI, KARATULA HONETAN BAKARRIK